Aintzinako kultur ondasunak Pirineoetan

Eder zaigu Aran Pirineoetan, Mussén Jûsep Condó Sambeat-ek bere poema baten irudimenera:

E atau que ei. Perque tuti es sos Santuaris / desde Muntgarri enguía et Pont de't Rei / éren honts de's héts estraurdinaris / que'ra aranesa historia han hét cum ei.

Ederrago ordea Pirineoaren bihotz bihiotzean norperaren begiz toki eta erreliki beneragarri diren monumentu haiek. Gainera, euskaldunontzat, Bernard Duhourcau-k bere ***Guide des Pyrénées mystérieuses*** *(1980) delako liburuan azaltzen dituen bitxikeriak heurak baino enigma handiagoa dutela esango nuke. Han bai ditugu gure hizkuntzaren eta kulturaren erroak. Euskal Herriaren jatorria aztertzeko orduan ahaztu ezinezkoak ditugu Pirineoetako mendarteetan gordetzen diren haran eta herriak.*

Pirineoetan loratu zen aintzinako kultura, abelzaintza hedatuz bizitzaren ekonomiaz gorapena lortzetik zetorren. Arkeologian Pirineoko kulturatzat ezagutzen dena, Neolitos garaitik metalenera arte doa. Eta, Pirineoa ardatz edo bihotz zela, udatik negura larraldaketen mugak Garona ibaitik Ebrora kokatzen ziren. Horren berririk zehatzenetakoak Luis Pericot Garcia-ren ***Los sepulcros megalíticos catalanes y la cultura pirenaica*** *(1950) deritzan liburuan aurkituko ditugu.*

Aintzina hartatik Erdi-aroaren goi partera arte goraka joan zen Pirineoko ekonomia. Horren lekuko ditugu bazter batetik bestera hain ugari aurkitzen diren eliza erromanikoak. Haran guziak biztanlea bete beterik eta ondasunez bizi ziren garaia. Gainera, XI. mendean etorri zen liturgi aldaketaren ondorenean eraiki ziren arkitekturan ere badute beren nortasunezko berezitasunik aski, ekaldetik mendebaldera distantziaz eta denborazko aldakuntza guziekin ere, oro har, Europako artean nortasun berezia gordeaz. Gaur ordea, Pirineoa jendez hustutzen ari zaigu eta herri abandonatuetan anitz eliza bada galzorian. Horregatik katalandarren Generalitat-earen eraginez, arkitektura berezi hori zaindu nahirik, Val d'Aran-eko Arties herritxoan Jardunaldiak izan ditugu, hiru egunez. Horien berri zehatzak adiskide Xabier Aranburuk ***Deia*** *egunkarian martxoaren 21 eta 23koetan emanak ditu. Beraz, bide beretik berri berdinak ematen ez naiz abiatuko. Bada bestelako kontakizunik ere.*

Aintzinako denbora haien eta Erdi-aroaren goi partearen bitartean iluntasuna nabari da. Baina, harrigarria badirudi ere, ilunez estaltzen den garai horietan aurkitzen ditugu euskararen lehenengo idatziak. Erromatarren inperioa erortzeaz, Akitaniaren eragina zabaldu zen oroitarri bereziak zabalduz. Zeren latin irarrietan euskal izenak arkitzen bai dira. J. Sarrate jaunak han eskaini zigun ***El arte románico en el Baix-Arán*** *liburuaren sarrera partean jasotzen da idazki horietako bat, duela ehun urte Escuñau-ko elizaren horman aurkitua:*

ILVURBERRIXO / ANDEREXO

Mitxelenaren ***Textos arcaicos vascos*** *(1964) liburuan, lehen lehenik agertzen dena hain zuzen. Gure adiskide hizkuntzalari ospetsuak zuhur jokatzen du bere esan nahia adieraztean, lehena jainkokiren bat eta bigarrena hari eskaintzen diona izan daitezkela azalduz. Gainera,* ***berri*** *eta* ***andere*** *zatietan ez dagoela inolazko zalantzarik euskarazkoak direna, ez eta ere* ***xo (txo)****, atzizki bezala. Nik nere ausartasun guziarekin, orduan Sarrate jaunari agertu nion bezala,* ***ilur****-i Ilunberri (Lumbier), Irurzun, Irun, Iruña eta abarrekin kidetasuna aurkitzen diodala,* ***(h)iri*** *sustraikoa behar bada. Erarik errezenean* ***Iriberritxi / anderetxo*** *egiteko. Baina, dakienak daki, eta hobe hizkuntzalariari bere baitan uztea. Itxuraz osatzea gauza bat da, baina oroitarri haietan jarraitzen zen ohiturari erantzunez adieraztea beste bat.*

Duela hogeta bat urte, Alpes mendietatik itzultzean eta Pirineoa oinez igaro, Bagnéres-de-Luchon-go museoa bisitatu nuen, Val d'Arandik hurbil, eta ***Calagurris****-go moneda batez gainera, Pirineoko etnografiaz zenbait gauza eta erromar eta akitaniar oroitarriak ere ikusi nituen. Horien artean bazen bat inolazko adierazpenik gabea; bertan esan zidatenez, ulerkaitza zelako. Ezkerraldean mailatu asko zituen eta ez zen erraz irakurtzekoa, baina, hala ere, argi ta garbi ageri zen honako hau:*

RVLLVSMAV / BETEXORATAE
I SILVINO F (ilo) / D ANDEREN

Hor ere euskarazko parteak dira. Baina, Val d'Aran parteari berriz loturik, Joan Corominas-en lekuizen bilduma ere gogoangarria da, zeren begiratu batean zalantzak uxatzeko bezalakoa baita. Beraz, ez dugu dudarik Val d'Aran-en, orain ozitanoz mintzatzen badira ere, lehen euskaraz mintzatzen zirela. Hortaz zerbait jakin nahi duenak aski du Jacques Alliéres-en ***Les Basques*** *edo Mitxelena beraren* ***Sobre el pasado de la lengua vasca*** *begiratzea.*

Baita ere, kontutan hartzekoa dugu biztanleen tipologia. Santiago Alcobé-ren antropologia ikerketak (1941) ideki zituen bideetatik jarraitu zen Pons-ek, gustoen sentzibilitateaz, behartzetako marraz, odolaren Rh faktoreaz eta abar, arandarrenak eta oraingo euskaldunenak konparatuz. Jose Mari Basabe izan da hortaz beste jarraitzaile bat eta ***IV Symposium de Prehistoria Peninsular*** *(1966) deritzan tomoan biltzen ditu konparaketak.*

Arandarrak heuren kontzientzian dute euskaldunenganako kidetasuna eta harro agertzen dute, senide hurbilak bagina bezala.

Guzi horregatik, gogoangarria zaigu Pirineoa gure erroak ikertzeko eta ezagutzeko, eta badugu arrazoirik aski bertako erromaniko arkitektura gurea balitz bezala tratatzeko. Oroi nafar erregeen baitan azaldu ginela historiara, erromanikoa hedatzean eta arte estilo hortaz dugun gutia ere bertako eraginezkoa dela. Horregatik, Arties-ko bileretan Pirineoa non mugatzen zen eztabaidatzen zenean, gure partetik argi utzi genuen Ludovico Pio-k jarri zuen "Marca Hispánica" kontuan hartuz eta XI. mendetik XIII.era bitartean ezagutu ziren erresumak beste zenbait egoera instituziozko, apezpikutegi, monastegietako ordenak eta abar, garai hartako estatusetan kokatuaz. Behar bada ordukoa izanenda guertzat egiazko ***Vasconia*** *osatua.*

Juan SAN MARTIN

Para nosotros los vascos, el Pirineo es un enigma tanto o más de lo que expone Bernard Duhourcau en la colección de guías negras, en lo que respecta al pasado de nuestra lengua y su entorno cultural. Entre los arqueólogos es manifiesto la importancia de la cultura pirenaica del estadio pastoril o ganadero desde el Neolítico hasta la edad de los metales, vertebrada por la cordillera cuya trashumancia alcanzaba hasta las orillas de los grandes ríos Garona y Ebro. Luis Pericot García fue el autor de un corpus general con la obra **Los sepulcros megalíticos catalanes y la cultura pirenaica** (1950). Desde ahí a la Alta Edad Media, su aspecto económico debió ir en alza, y en la cúspide de su esplendor se produjo una arquitectura muy peculiar siguiendo las exigencias litúrgicas del cristianismo: el románico. Si bien es verdad que abarca todo el occidente europeo, dicho estilo, por la densidad de monumentos y sus particularidades arquitectónicas, variadas de un extremo a otro en su proceso evolutivo, caracterizan a los valles pirenaicos. Dada su importancia y promovido por la Generalitat, se han celebrado unas jornadas en Arties (Valle de Arán), de las que nos ha ofrecido amplia información Javier de Aramburu en **Deia** del 21 al 23 de marzo.

Kanarietako hizkuntza zaharra

Hamabortzgarren mendeko azken urtheetan Gaztelaren Erregearen zerbitzuan lehen konquistatoreak "Uharte Zoriontsuetan" ageri zirenean, guztiok harrituta geratu ziren hango genteak —zeinak Neolithiko kultur batetaz bizi bait ziren— euskaraz heien artean mintzo zirela entzun zutenean. Faktu hauk epokhako irazkietan dokumentatuta dagoz. Nola konquistatore hauk, Atlantiko ezpondeetako marinelak bait ziren, eta hauiek euskara nolakoa zen ezagutzen bait zuten, heien aburua ezin izan ziteken gezurrezkoa. Huntaz gainera geroz, uharte hauietako genteekin hulertzekotz, euskal itzultzaileak Gaztelako Erregeak izendatu zituen. Hauietan ezagutua zen Juan Mayor bizkaitarra.

Juan Mayor, Fernando Guanartemeren itzultzaile zen. Guanarteme, Tamaran uharteko (Gran Canariasko) erregea izan zen, eta hola giristino bilhakatu bait zen, halatan Fernando katholikoa, haren aitaponteko izan zen. Geroz uharte hauietara euskal aphezpikuak bidali zituzten "hizkuntzaren kausaz" erraiten zutenez.

Bainan hau baino gehiago, urthe geroago batzu harat joan ziren persona batzuek, horko hizkuntzaren textu batzu eman derauzkigute, kanarietako uharteen hizkuntzaz eta itzulpen batetaz. D. Wölffel alemano ikhertzalariak Kanarietako hizkuntzaz iratzitako textuak mundu guztietako bibliothêkêetan sakabanatu zegozen irazkietatik bildu zituen eta bere lan hauk posthumuki Austrian publikatu dituzte. Gauza harrigarria, bainan "Institutum Canarium" izeneko gizartearen domizilioa ez dago, Kanarietako hiri batetan, ez eta Madrilen ere, baizik-eta Austrian Salzburgera hurbil dagoen hiri batetan. Dirudienez Españan nehor ere Kanarietako hizkuntzaren problêmetan interesatzen ez bait da.

Phrasi hauk, askotan euskarari oso hurbil dagozela ikhusten da. Tenerfizi izeneko uhartean ba dago lekhu bat, non guantxoen arbasoak lehen aldiz lehorreratu bait ziren. Lekhu hunen izena ***"alzanxiquian abacanabacuxerax"*** *zela dioite. Bertze textuekin erkatzen ba dugu hura:* ***"al handikien abean bakhu xerax"*** *dela erraz ikhusten dugu. Phrasi huntan bakharrik "xerax"* ***lekhua*** *dela jakin behar da.*

Bertze hitz guztiak argi ta garbi euskarazkoak bait dira, itzuli behar ez ditugu, zeren-eta itzulpenetan emaiten den erran-nahia hauxe bait da. Geroz Ezero uhartearen (hau da gaurko formaz, Hierro uhartearen) kantu batetan phrase hau agerten da: ***"hua zu Agarfu be nere nuza"*** *eta haren erran nahia hauxe dela erraiten da:* ***"Si Agarfu (nombre propio) no quiere mirarme"****...beraz euskaraz:* ***"Ba ze Agarfuk beha nahi naza".*** *Jakina den bezala euskara zaharrean (eta orain Bizkaiko itsabazterreko hirietan ere) ze (latinezko* ***ne****) bezala subjunktivuaz erabilten zen ez (latinezko* ***non****) formaren orde. Eta phrasi hunen syntaxia zerbaixka gaurkotzen ba dugu hauxe da:* ***"Agarfuk beha nahi ez ba naza".*** *Uharte hauietan huntaz gainera izen geôgraphikorik asko euskarazkoak dira:* ***Artenara, Arinaga, Macizo de Jandia*** *(Naforroak* ***Sierra Handia*** *bezala)* ***Arguineguin, Garafia*** *(Garapea, mendien oinean dagoen hiri baten izena).* ***Teneguia (Thini-Hegia), Arona, Aripe, Garatxiko, Orotavaren*** *izen zaharra:* ***Arautaphala.*** *Santa Cruz de Tenerife izen zaharra:* ***Añazu, Abona. Lanzarote*** *uhartearen izena latinez* ***"Capraria"*** *zela dioite beraz hemen erraz* ***"La Aunzuharte", "Lanzarote"*** *formara iragan zela ikhus diteke.*

Geroz konquistaren epokhan egin zituzten deseinu batzuen bidez, gente hauk nolako typo physiko zedukaten ikhus dezakegun eta koadro guztietan "CroMagnon" typokoa zirela ikhusten da, beraz euskal baserrietan askotan ikhusten den giza-typokoak.

Ongi da beraz, populazione huni buruz theôri bat aphailatu baino lehen, heiei buruz dakitzagun faktuak kontuan hartzea, zeren ezein ere theôrik valiorik ez bait daduka faktuen kontra, eta orain askotan gerthatzen den bezala guantxoak, berberoak zirela erraitea, baldin-eta konquistaren epokhan guantxoen hizkuntza bizirik zegoela, eta euskaraz eta berberoaz enthelegatzen zutenek, hizkuntza hori euskararen dialekto bat zela erraiten ba zuten, zentzu hunen kontrako theôriak jakintzazkoak izan ez bait ditezke.

Tenerfiziko populuaren izena "guantxo"ak zen. Eta haren uharteari Guancheneche (Guantxen Etxe) izena emaiten zioten.

Federico KRUTWIG SAGREDO

Cuando los primeros europeos llegaron a las Islas Canarias al servicio de Castilla, los recién llegados, que eran mayormente franceses de la costa atlántica, y entre ellos algunos vascos, se quedaron estupefactos al constatar que aquélla población que vivía aún en la Edad de Piedra, hablaba vasco. Este hecho, está documentado por los autores de la época, por más que algunos lingüistas quieran ignorarlo. Se nombraron hasta obispos vascos para que se entendieran con los autóctonos. De algunos casos de estos intérpretes hasta se conocen los nombres. Así, Temisor Semidan, quien después de su conversión, fue bautizado con el nombre de Fernando Guanarteme, en memoria de su padrino, el católico Rey de Aragón, llevaba como intérprete a un vizcaíno llamado Juan Mayor.

Estos hechos son de destacar para la formulación de toda teoría, puesto que ninguna teoría puede tener ningún valor científico en contra de los hechos. Esto es una condición sine quanon de toda ciencia exacta. Desgraciadamente, muchos teóricos Lingüísticos suelen querer ignorar tal condición, quizá debido a que la Lingüística, incluso la que emplea aparatos mecánicos, dista mucho de ser una Ciencia exacta, y en consecuencia sus teorizadores construyeron más sobre prejuicios e intenciones extra-científicas que sobre realidades. Dominik Wölffel, quien quizá la persona que más ha trabajado en favor de la lengua guanche, de quien se publicaron hace unos años sus trabajos póstumos en alemán, en una obra poco conocida en España, realizó una inmensa tarea al recoger todos los textos que conte-